


puntuua

P	A	K	I	S	T	A	N				
S	E	N	E	G	A	L					
B	E	N	I	D	O	R	M				
G	R	E	Z	I	A						
P	I	R	I	N	I	O	A	K			

UDAKO OPORRAK
DEBAGOIENDARRAK, IRTEERARAKO PREST





PUNTUA 202

2019-07-19 EGUBAKOITZA

Azala:

Iñaki Iturbe.

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Hasier Arraiz
 - 6 **Irudiz** Saltoka dabilena
 - 8 **Mundutik** Belgika: Sakelakoak sakelara!
 - 10 **Erreportajea** Oporrak, norberaren gustu eta estilora
 - 20 **Elkarrizketa** Mikel Bakaikoa, emakumezkoen Osasuna taldeko entrenatzailea
 - 24 **Osasuna** Diapasoi-belarria
 - 26 **Kirola** Mikel Borobia bergararra *scooter*-ean maisu
 - 28 **Adituen esanetan** Lehen sektorea, denen ardura
 - 30 **Otorduan** Santa Ana jatetxea: terraza ederra udarako
 - 32 **Moda** Zer sartu maletan
 - 34 **Motorra** Zirkulazio isunak: txankletekin, bai ala ez?
 - 36 **Gure artistak** Maddi Guridi oñatiarra
 - 38 **Kultura** Aran Saiz Markuleta musikaria
- 40 **Liburu artean** *La Trenza*
 - 42 **Gure altxorrak** Urbia: Andre Mariaren ermita
 - 45 **Gadgetmania**
 - 46 **Handitzen, handitzen** Eskulana: *Diademak eta gomazko zintak, dekoratuta*
 - 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Maddi Iñarra *'Summertime Sadness'*
- 16 **Hainbat aburu** Martin Calvo *Gesto (1985-2013)*
- 16 **Eztabaida** Herri erdiguneetan kameraren zaintza
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Maider Azkarraga-Urizar *Iturri zaharreko ur berria*
- 18 **Talaiatik** Agustin Unzurrunzaga *Integrazio on baten alde*
- 44 **Komunikazioa** Irati Barrena *Isiltasuna*

puntua

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal

Zuzendaria

Eneko Azkarate

Erredaktore burua

Monika Belastegi

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate

Publizitate arduraduna

Mireia Larrañaga

Kluba eta banaketa

Igone Osinaga

Maketazioa

Aitor Lagoma

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano

Administrazioa

Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:

Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUA ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

'Summertime Sadness'



MADDI IÑARRA

Sare sozialen batean irakurri nuen, pasa den astean, Lana del Rey abeslariaren *Summertime Sadness* kanta, orain dela 7 urte –7 urte!– kaleratu zena, berriz ere sartu dela AEBetako iTunes zerrendako lehenengo postuan. "Ez naiz udan tristura sentitzen duen bakarra", pentsatu nuen. Baina zerk eraman gaitzake urtaro zorionsu eta alaiena *behar lukeenean* tristura sentitzera?

Gabonekin gertatzen den bezala, esango nuke presio asko dagoela udaren inguruan ere; egun luze eguzkitsuak –ateratzen direnean– azken segundoraino zुकutzeko presioa, "zure bizitzako aroa" igarotzekoa, urte osoan lan egiteagatik irabazi dituzun egun libreak topera aprobetxatzekoa. Zerbait gogoangarria egin gabe uda igarotzea uda ez aprobetxatzea al da? Badirudi behartzen gaituztela urte osoan metatutako estres, karga edo kontu txarrak pare bat asteko ihesaldian ahaztu eta eraberriturik betiko errutinara itzultzera. Oporretan edozer egin baitaiteke, baina oporretatik kanpo errutinazkoak ez diren jarduerak egitea edo bizitzaz gozatzea ez baitago oso ondo ikusia...

Ez gaizki ulertu, atsegin dut uda; egun luze eta argitsuagoak, naturaz beste era batera gozatzea ahalbidetzen duen eguraldi eguzkitsu eta egonkorragoa –ipar-isurialde honetako salbuespenak salbuespen...–, festak, oporrak... baina lanak, eginbeharrek edo bestelakoek mugatu egin dezakete horietaz gozatzeko denbora edo aukera, eta uda "behar beste" aprobetxatzen ari ez dela sentitu eta tristatu egin daiteke bat.

Dagoenarekin edo ahal denarekin konformatu eta hori baloratzea izan daiteke soluzioa? Baliteke. Uda edo oporrak nolakoak izan beharko litezkeen pentsatzeari utzi eta norberari gorputzak eskatzen diona egitera mugatzea? Agian. Garagardo iragarkiek erakusten dituzten eszenek errealitate idealizatua erakusten dutela gogoraraztea? Ziurrenik. Norbere bizipenak ingurukoekin alderatzeari uztea? Bingo.

Hau izango da opor aurreko nire azken zutabea. Kontatuko dizuet bueltan Lana del Rey-ren abestia askotan entzun dudana edo ez. ■■■

GABONEKIN GERTATZEN DEN BEZALA, ESANGO NUKE PRESIO ASKO DAGOELA UDAREN INGURIAN ERE

Hasier Arraiz

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: IDOIA GONZALEZ

Politikaren lehen lerroa utzi eta hiru urtera, *Maitasun keinu bat besterik ez* liburua kaleratu du gasteiztarrak.

Zure lehen liburuaren izenburuagatik nobela erromantiko bat aurkituko duela uste duena oker dago oso... Baita poema bilduma bat espero duena ere. Saiakera bitxi bat da, euskal literatura garaikidea eta filosofia politikoa batzen dituelako.

Ez da erraza biak lotzea, baina badago hari bat: nire belaunaldia. Euskal narratiba garaikidean belaunaldi berri bat eratuta dagoela diot: Kirmen Uribe, Eider Rodriguez, Harkaitz Cano, Karmele Jaio, Katixa Agirre, Mikel Peruarena Ansa, Unai Elorriaga... Euren lanekin postmodernismoa, literaturaren mundu mailako azken paradigma nagusia, apurten dabilta euskal ikuspegitik. Planteatzen dut aurrerantzean badituztela jorratzeko paisaia narratibo berriak, eta horiekin batera erronka politikoak ere kokatzen ditut.

Politikariak eta idazleak batu dituzu liburuaren aurkezpenetan. Bi munduek zer ikasi beharko lukete elkarrengandik? Aurkezpenetako batean Harkaitz Canok oso ondo esan zuen bi munduak ezkondu ezinak direla; idazleek zehaztasunera jotzen dutelako eta politikariek, abstrakziora.

Baina bere hitzaldia bere programa politikoarekin amaitu zuen; horrek pentsarazten digu literatura eta politika elkarren lagungarri izan daitezkeela. **Nola bizi izan duzu liburua idazteko bidaia?** Uste baino luzeagoa izan da. Gainera, irakasle lanekin eta umeen zaintza eta hazkuntzarekin batera eraman dut, eta hortik pasatu direnek badakite zein zaila den baldintza horietan lan eginaz produktu txukuna egin nahi izatea. Gozatu eta sufritu egin dut, baina esperientzia polita izan da. Zailena izan da idatzitako dena liburu bihurtzea.

Liburua euskaraz egonda, helduko zaie heldu behar zaie denei? Nire ustez, liburuak euskal gizartearen baitan nahiko zabala den espazioa ordezkatu nahi du: nondik gatozen baino gehiago, nora joan nahi dugun lehenesten dugunon, horri

garrantzi handiagoa ematen diogunon, espazioa. Argi dugu iraganean hautsitako zubi batzuk berriz eraiki behar ditugula elkarlanean. Baina nazio kontakizun berri bat osatu nahi dugu, etorkizunean nolako komunitatea nahi dugun erabaki. Nire kontakizun aspirazional horrek ez du lekurik ez Frantziako ezta Espainiako lege markoan. Hala, ibilbide berriak sortu behar dira, eta esango nuke jende asko dagoela puntu horretan; bai kulturari eta baita politikan indarrak batzeko prest.

Garai latzetan literaturak salbatu egin zintuela esan duzu. Zein botere du, bada? Errealitatea latza denean, hortik aldentzen laguntzen digu; baina, beste alde batetik, errealitate gordin hori adierazten eta ulertzen ere bai, fikzioaren bidez errealitatearen aspektu ezberdinetan sakontzen. Niri, bietarako balio izan dit, aberasgarria izan da.

Ikasturte politikoa gogorra izan da. Nola ikusi dituzu zezenak barreratik? Txundituta nauka elkarriketa politikoa oraindik ere kriminalizatuta egoteak; ez izatea posible alderdiek elkarrekin hitz egitea. Irrigarria eta lotsagarria iruditzen zait. Aldaketaren bidean Nafarroan eta Iruñean jokoan zegoena ikusita, ulergaitza egiten zait alderdi legal eta demokratikoen artean ezin hitz egitea.

Politikaren ondoren, bada bizitzarik? Bai, noski! Ona, gainera; hobe, hainbesteko presio gabekoa! Politikatik aldenteak eta liburua idazteak nire ni pertsonala berreskuratzeko balio izan dit; askotan, subjektu kolektiboen izenean hitz egin behar nuelako eta, batzuetan, zaila egiten zitzaidalako. Nire ni horrekin bat egitea freskagarria izan da.

Legebiltzarrean edo institutuko geletan dago diziplina falta handiagoa? Batzuetan, Legebiltzarrean; halere, gure institutuan ere diziplinarena ez da dohain preziatuena. Gauza batzuk aldatu arren, gure garaian ere halaxe zen. Nerabearoa adin zaila da; esperientzia aberasgarria da haiekin lan egin eta haiengandik ikastea.

Urte sasoi honetan, ohiko galdera: oportet, nora? Asteburu honetan, Tarragonako herri txiki bateko kanpinera joango gara; eta handik bueltan, Oriokora: kanpinetik kanpinera. ■■■





Saltoka dabilena

ARGAZKIA: IBAN LUENGO

TESTUA: IMANOL BELOKI

Matxinsaltoak, izenak dioen moduan, saltoa du bere identitate. Argazkikoa *Tettigonia viridissima* motakoa da: Tettigoniidae familiako ortopteroa, hain zuzen ere. Berde kolorekoa, txikia, antena luzeak dituena, minik egiten ez duen intsektua dirudi, baina suntsitzaile handia ere izan daiteke, aldi berean. Belardietan matxinsaltoak harrapatzen saiatzean, salto egin



eta atzetik berriz harrapatzen saiatzeko jolas egiteko aproposak dira; entretenimendu ederra gaztetxoentzat. Nekazaritza intentsiboaren eraginez, pixkanaka-pixkanaka desagertzen ari den intsektu mota da, eta, aldi berean, guri, euskaldunoi, arrotza egiten zaigun arren, Afrikako eta Asiako zenbait herrialdetan horiek jateko ohitura ere badago. ■

Sakelakoak sakelara!

BELGIKA



TXEMI ETXEBARRIA

BELGIKAN BIZI DEN BERGARARRA

ARGAZKIAK: T.E. ETA PMK

Heldu da uztaila, eta, honekin batera, Herbehereetan bizikletan zoazela sakelako telefonoa erabiltzeko debekua ere bai. Herbehereetan biztanleak baino bizikleta gehiago daude: 22,5 milioi, gutxi gorabehera. Biztanleriaren laurden batek erabiltzen du bizikleta egunero eta 2005a ezker %12 igo da bere erabilera. Batez beste, txirriindulari bakoitzak 965 kilometro egiten ditu, urtero, 35.000 bizikleta-bide baino gehiago dituen herrialde honetan. 2017an, 206 txirriindulari hil ziren trafiko istripuetan, 2016an baino 17 gehiago. Istripu hauetan, bostetik behin sakelako telefonoak zerikusi zuzena eduki zuen 12 eta 25 urte bitarteko erabiltzaileen artean. Beraz, logikoa da autoaren erabileran debekatuta dagoen bezala bizikletan ere debekatzea aparatua honen erabilera. Ez bakarrik telefonoa, musika

entzuteko aparatua ere debekatuta dago. Isuna 95 euro da herrialde horretan.

Sakelakoaren erabilera

Belgikan lehenagotik ezarri zuten debeku hau, eta isuna 116 eurora iritsi daiteke. Debeku hau, ordea, orokorragoa da hemen. Ez ditu bakarrik aparatua elektronikoak aipatzen, baita bizikletan zoazela jatea, edatea, erretzea eta altzoan txakur solte bat eramatea ere debekatzen du.

Sakelakoa bakar bakarrik erabil daiteke baldin eta bizikletaren eskutokian finkatuta badago. Modu horretan, deitzeko ez erabili arren, eskuan eramatea ere debekatuta dago.

Ameriketako Estatu Batuetan urtero 6.000 pertsona hiltzen dira, gutxienez, oinezkoen bidegurutzeren batean. New Yorken kopurua jaitsi egin nahi dute, telefono mugikorraren erabilera bidea gurutzatzen dabiltzan oinezkoiei debekatuz. Isuna 250 dolar da -220 euro inguru-.

Espainiako Estatuan ere aspaldidanik dago debekatuta sakelakoaren erabilera bizikleta gainean. Auto barruan erabiltzeko debekuarekin batera iritsi zen, oker ez banabil. Arazoa da isuna ezartzeko orduan gidabaimeneko puntuak ere kendu diezazkizuketela. Baina zer gertatzen da gidabaimenik ez badaukazu? Gainera, kasu batzuetan, ezin da konparatu autoan edo bizikletan ibiltzea. Hor badago, beraz, eztabaida puntu bat.

Errepidetik kanpo ere, sakelan

Sakelakoaren erabilera arriskutsua izan daiteke errepidean, dudarik gabe. Baina badaude beste toki batzuk non bere erabilerak min asko eragin dezakeen. Esate baterako: kontzertu bat entzuten zaude, lasai-lasai; begiak itxita, akaso. Musikak beste mundu batera garraiatu zaitu eta jadanik ez dakizu non zauden ere. Eta orduan, melodia suabe-suabe bukatu bezain pronto, Nokiaren melodia famatuaren ordua iristen

BIZIKLETAREN ESKUTOKIAN BADAGO BAKARRIK ERABIL DAITEKE SAKELAKOA BELGIKAN

ERREPIDETIK KANPO MINA ERAGIN DEZAKE SAKELAKOAK; KONTZERTU BATEAN, ADIBIDEZ



da. Aaaaa! Zer egin?
Aukera bat izan daiteke
biolin-jole bakarlariak
Nokiaren melodia imitatu
eta inprobisatzen
jarraitzea –eta hau
benetan gertatu zen–.
Barre algara publikoak eta
tomatea bezain aurpegi
gorri jarri zitzaion
sakelakoaren jabeari.
Halako beste batean,
antzerako gauza gertatu
zen. Orkestrako
musikariek piano-jole
bakarlari bat laguntzen

zuten. Piano-jolea
bakarrik jotzen zebilen
momentuan jo zuen
telefonoak, baina oraingo
honetan soinua
musikariaren artetik
zeturten... Piano-joleak
jotzeari utzi, atzera
begiratu eta sakelakoaren
jabeari lasai asko honako
hau bota zion: "Hartu eta
erantzun ezazu...".

Nik neuk hauei guztiei
jarriko nieke isuna,
urtebete kontzertu bakar
batera ere joan gabe, eta

kontzertu ostean atrilak
eta aulkiak erretiratzera
zigortuta.

Nire musikariek
debekatuta daukate
entseguetan ere mugikorra
areto barrura sartzea. Bi
salbuespen daude: guardia
egiten dagoen medikua edo
haur baten zain dagoen aita
izatea –ama zentzuduna
bazara, ez zara entsegura
etorri–. Beraz, errepedean
edo musika areto baten
bazaude, sakelakoa
sakelara –eta itzalita!–. ■■■



Oporrak, norberaren gustu eta estilora

Modu askotan aprobetxatu daitezke oporrak. Badira urtero plan bera egiten dutenak, aldatu egiten dutenak, lasai egoteko aprobetxatzen dutenak edota jaiegunak leku berriak ezagutzeko baliatzen dituztenak; uda honetan plan ezberdinak egingo dituzten hainbat debagoiendar batu ditugu erreportaje honetan.

Testua: **Eneko Azurmendi**. Argazkiak: **Flickr/ Creative Commons**.



Ezkerretik hasita, Benidorm, Dionewar, Baltistan bailara, Mikonos eta Pirinioak, debagoiendar batzuen opor lekuak izango direnak.

Uda bete-betean gaude, eta uda sasoiaren bereizgarri nabarmenetako bat oporrak dira. Berauek aprobetxatzeko moduak askotarikoak dira, norberaren gustu eta baliabideen arabera izan ere. Geroz eta jende gehiagok egiten du uztailean eta irailean bidaiatzearen aldeko hautua, baina oraindik ere abuztua da "hilabete izarra", Arrasateko Halcon Bidaiak-eko Esther Guillaumes-en eta Maite Caballeroren esanetan. "Zirkuituak, adibidez, uztailean egiten dira gehiago. Abuztuan gehiago izaten dira hondartzako egonaldiak. Oro har, uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztuko lehenengoan joaten da oporretan jende gehiena. Halaber, iraileko lehen hamar egunetan ere mugimendu dezente egoten da".

Zirkuituak bidaiak antolatuak dira, herrialde baten barruko hiriak ezagutzeko eta bisitak egiteko egiten direnak. "Europar egiten dira gehienak, baita Asian ere: Alemania, Polonia, Errumania, Kroazia, Eskozia, Vietnam, eta abar. Europako zirkuituak astebete ingurukoak izaten dira; Asiakoak, bi astekoak", azaldu du Guillaumesek.

Sardinia da orain modan dagoen lekuetako bat. "Asko eskatzen du jendeak, geroz eta gehiago, bai iaz eta baita aurten ere. Horrez gain, Eskozia, Kuba eta Vietnam ere dezente eskatu du jendeak. Bestalde, Polonia, Norvegia eta Kroazia, adibidez, urterokoak dira. Beti daude modan. Bitxikeria moduan, aurten, San Juan jaietan, Errusian egon da Arrasateko talde bat, eta oso gustura etorri dira", azpimarratu dute Halcon Bidaiak-eko kideek.

"Benidorm paradisia da"

LARRAITZ ARRIOLABENGOA URTERO BENIDORMERA JOATEN DA, TXIKITATIK

5-6 urte zituenean hasi zen Benidormera joaten Larraitz Arriolabengoa aramaioarra, eta, ordutik, urtero joaten da: "Lehenik, nire aitona-amonekin eta gurasoekin; gero, lagunekin; orain, gizonarekin eta umeeekin. Nire bigarren herria izango balitz bezala da".

Bizitzako etapa guztietan ezagutu izan du Benidorm, eta etapa guztietarako paradisia dela aitortu du: "Egunero dago zerbait egiteko adin eta gustu guztietarako".

Oporrak igarotzeko lekurik aproposena topatu dutela dio. "Nire umeak nire lagunen umeen lagunak dira orain eta



Larraitz Arriolabengoa, senarrarekin eta bi semeekin, Benidormen.

euren kuadrillatxo egin dute, nik egin nuen moduan".

Kritikak, ignorantziatik

"Benidorm jende askok kritikatzan du, baina kritikatzan

duten horiek dira, hain zuzen ere, inoiz joan ez direnak. Gero, ordea, joaten denak errepikatu egiten du. Nire gizonari gauza bera gertatu zitzaion", azaldu du.

SARDINIA DA MODAN DAGOEN LEKUETAKO BAT, BAITA ZIRKUITUAK ETA BIDAIA ANTOLATUAK ERE

Onartu dute, baita, Maroko, Turkia, Egipto eta beste hainbat leku berreskuratzen ari direla duela urte batzuk zeukaten ospea. "Azken urteetan, jendea ez da herrialde horietara joan, gatazka politikoengatik, baina orain, geroz eta gehiago ari dira eskatzen".

Adinaren arabera, plan ezberdina

Guillaumesen esanetan, gazteek euren kabuz joan nahi izaten dute; Kubara edo Vietnamera, adibidez. "Eskatzen dizutena da hegaldia eta han auto bat. Hortik aurrera, independentzia nahiago dute. Adinez nagusiagoko jendeak bidaiak antolatuagoa nahi izaten du, bisitekin, gidarekin, jatorduekin, eta abarrekin. Familia planean doazenek hondartza nahiago izaten dute, leku batean finkatuta, hotel batean. Kanarietan, Menorcan edota Sardinian, gehienbat".

Erreserbak, geroz eta azkarrago

Caballeroren esanetan, jendeak geroz eta azkarrago egiten ditu erreserbak. "Lehen, uztailean sekulako ilarak edukitzen genituen bulegoan, abuzturako oporrak hartzeko. Orain, berriz, ia guztia salduta daukagu, eta dokumentazioak prestatu besterik ez dugu egiten uztailean. Jaiegunak garbi dituen jendeak Gabonetan, urtarrilean, otsailean eta, asko jota, martxoan egiten du erreserba".

Itsas bidaietan, 2020rako eta 2021erako ere erreserba eginda dute batzuek. "Udan, Greziako uharteetara eta Norvegiako fiordoetara egiten dituzte gehienak. Urte guztian, Bartzelonakoa ere badago, mediterranean egiten dutena, baina Greziaraino joan gabe". ■■■

"Ahal dugun ekarpena egitera goaz"

AINTZANE GARDOKI PAKISTANERA DOA FAMILIAREKIN

Pakistanera joateko baliatuko dituzte oporrak Aintzane Gardokik, senarrak eta bi 18 eta 21 urteko bi semeek. Dagoeneko han dira, gainera. Uztailaren 16an abiatu ziren, eta abuztuaren 21era arte egongo dira Baltistan bailaran, herrialdearen iparraldean. "Machulu herrian egingo dugu egonaldiaren zatirik handiena, Baltistan fundazioarekin batera", azaldu du Gardokik.

Ahal duen heinean, bere aletxoak jartzera joango da familia arrasatearra. "Fundaziotik azaldu ziguten egokia izango zela gure ekarpena egitea, hangoek zerbait berria ikas dezaten. Hori dela eta, orain arte ezezagunak egin izan zaizkidan hainbat gauza egiten aritu naiz urte guztian zehar, gero hangoei irakasteko. Esaterako, xaboiak nola egiten diren ikasi dut, eta josten ere ikasi dut. Sekula ez naiz joskintzan aritu, eta, Pakistan buruan izanda, txapelak egiten aritu naiz. Izan ere, badirudi hortik etor daitekeela proiektu bat".

Senarra, berriz, pedagogia egiten saiatuko da. "Gizonaren zeregina izango da hango gizonak animatzea eta konbentzitzea emakumeek zeresan handia dutela bailara indartzeko orduan. Han emakumeek zeresan gutxi dute. Mikrokooperatiba bat martxan jarri gura dute, eta, bailara garatu ahal izateko, emakumeak ahalduntzea gura du fundazioak".

Bi semeak, azkenik, Interneten erabileraren inguruan ikasleak formatzera doaz. "Antza denez, oso erabilera txarra ematen diote han Interneti, pornografia kontsumoa oso altua da".

Lehen esperientzia

Aurten opor egunak "beste modu batera" aprobeztatzea erabaki dutela dio Gardokik, eta kooperante moduan egingo duten lehenengo bidaia izango da. "Seguru nago buruan daukagunarekiko ezberdina den errealitate bat aurkituko dugula han, baina

"ABERASGARRIA IZANGO DA; BIZITZEKO MODU EZBERDINAK DAUDELA IKUSIKO DUGU"

aberasgarria izango da. Bizitzeko modu ezberdinak daudela ikusiko dugu. Gure etxea izango denaren argazkiak erakutsi zizkiguten, eta aulkirik ez dago, mahairik ere ez, sua lurrean dago eginda... eta hori han luxua dela esan ziguten".

Baltistan fundazioa

Fundazioa 2001ean sortu zen, Felix Iñurrategi hil ostean, eta helburua da hezkuntzaren bitartez emakumeak ahalduntzea. "Egun, zorionez, emakume gehienak eskolatuta daude, baina, oraindik, ezkonarazi egiten dituzte. Emakumeen errealitatea erabat ezberdina da Hunzan, alboko bailaran, eta hori gertutik ezagutzeko aukera izango dugu", azpimarratu du.



Aintzane Gardoki, bere semeekin eta senarrarekin.

"Ea zer eskaintzen digun Greziak"

MIKEL MADINA ETA IRATI MADINA GREZIARA DOAZ

Mikel Madina eta Irati Madina oñatiarrak Greziara joatea erabaki dute aurten: "Inoiz ez gara egon, eta probatzeko gogoia geneukan, beti piztu izan digu arreta. Argazkiak, behintzat, oso erakargarriak dira. Gainera, eguraldi ona ziurtatuta daukazu han, eta, agian, bero gehiegi egiten duen arren, gehienok dugu gogoko oporrak eguzkitan pasatzea. Aurreikuspen onekin goaz, eta ikusiko dugu zer eskaintzen digun Greziak".

Uztailaren 27an abiatuko dira harantz, eta abuztuaren 10ean itzuli. "Atenasen hiru egun pasako ditugu, Mikonos



Mikel eta Irati Madina.

uhartean beste hiru, Santorini artxipelagoan beste hiru eta, azkenik, Kretan lau egun. Aurrez han egon diren batzuekin egon gara, zer ikusi eta zer ez erabakitzeko, eta

eman diguten informazioaren arabera antolatuko dugu bidaia, hein batean", diote.

Lehen aldia

Lo egiteko orduan, prezio ekonomikoak lehenetsiko dituzte, eta kanpinetan, hostaletan eta etxeetan pasako dituzte gauak –*Airbnb* aplikazioaren bitartez–.

Bestalde, irletan nola mugitu daitezkeen aztertzen ari dira, "autobusez, edota auto bat edo motor bat alokatuta".


Ez dute halako bidaiarik inoiz egin. Alde horretatik, "erabateko esperientzia" izango dela aurreikusten dute.

"Urtero egiten dugu irteeraren bat mendira"

ELENE ETXANIZ ETA MANEX ALBERDI PIRINIOETARA DOAZ

Pol-Pol Mendi Elkarteko gazte taldeak urtero antolatzen ditu egun bat baino gehiagoko mendi irteerak, eta aurten, Pirinioetara joango da 32 laguneko talde bat. Uztailaren 24tik 28ra izango da bidaia, eta Iزابako Asolaze kanpinean pasako dituzte gauak.

Manex Alberdi eta Elene Etxaniz lehengusu-lehengusina bergararrak dira bidaia hau egingo dutenetako batzuk. "Pol-Pol Mendi Elkarteko gazte taldean aritzen den lagun baten ahizpa irteerak antolatzen ibiltzen da. Aukera eskaini zigun, eta onartu egin genuen", adierazi dute. Izan



Manex Alberdi eta Elene Etxaniz.

ere, oso mendizaleak dira. "Normalean, urtero egiten dugu irteeraren bat mendira. Askok gustatzen zait mendia, eta, urte guztia Madrilen bizi izaten igaro ostean, mendiko

haizea eta lasaitasuna asko eskertzen dut", azaldu du Alberdik.

Hainbat ibilbide egingo dituzte: Atxerito, Kartxela, Lakorra, Txamantxoia eta Hiru Erregeen Mahaia tontorrek igoko dituzte, eta Gamuetako basoa ezagutzeko aukera ere izango dute.

Furgonetarekin Biescas-era

Bidaia hori egin aurretik, baina, aste honetan Biescas-era joan da Etxaniz, furgonetarekin. "Lasaiago ibiliko naiz orain. Goizetan mendi bueltatxo batzuk eta arratsaldeetan errekan bainu bat, adibidez".

"Denetik egingo dugu Dionewar-en"

AINHOA ASPIAZU, JONE EGUREN ETA MIKEL LASA SENEGALERA DOAZ

2011 ezker, Senegalgo Dionewar herriaren eguneroko bizitza hobetzeko lanean dihardu Ndank Ndank elkarteak, eta gaur egun hainbat proiektu ditu martxan. Aurten, lehenengo aldiz, bizikidetza programa bat antolatu dute, bergarrek hango errealitatea ezagutu eta hango herritarrekin kulturartekotasuna lantzeko. Hori dela eta, 31 laguneko talde bat Dionewar herrira joango da abuztuaren 4tik 19ra bitartean; tartean, Mikel Lasa, Jone Eguren eta Ainhoa Aspiazu bergararrak. "Sare sozialen bitartez jakin genuen aukera honen berri, eta animatu egin ginen. Gehienak Bergarakoak gara, baina Arrasateko eta Soraluzekoren bat ere etorriko da gurekin", azaldu dute.

Badute zereginik bi asteko egonaldian. "Batetik, hango eskola eraberritzen lagunduko dugu, goizetan. Bestalde, hango haurtzetako aisialdi ekintzak ere egingo ditugu. Arratsaldeetan, berriz, herriaren inguruak ezagutuko ditugu, eta hango bizimodua gertuagotik ezagutzeko aukera ere izango dugu. Euskal kultura hara gerturatzeko zenbait ekintza antolatuko ditugu: musika, dantzak, eta abar. Horretarako, txalaparta bat bidali dugu jada, eta beste instrumentu batzuk".

Aspiazuren kasuan, hango erizaindegia ezagutzeko aukera izango du, eta hango



Jone Eguren, Mikel Lasa eta Ainhoa Aspiazu.

erizainekin elkarlanean ibiliko da. Bestalde, ikusmena aztertzeko aparatu bat eramango dute, baita betaurreko graduatu mordoxka bat ere.

"Osasungintzarekin harremana daukan bakarra ni naizenez, aparatua erabiltzen ikasi dut, eta hangoei erakutsiko diet, aurrerantzean haiek ere erabili ahal izateko", azaldu du Aspiazuk.

Opor ezberdinak izango dira hiru gazteentzat, lehen aldia izango baita halako bidaia bat egingo dutena. "Espero dugu oso esperientzia ona izatea.

"KULTURA BERRI BAT
EZAGUTZEKO, HANGO
JENDEAREKIN BIZITZEA
INTERESGARRIA DA"

Herialde berri bat beste era batera ezagutzeko aukera izango dugu, eta turismo jasangarria egingo dugula esango genuke".

Hango kultura, gertuagotik

Kultura senegaldarra gertuagotik ezagutzea gustatuko litzaiekeela onartu dute, dionewartarrekin "harreman zuzena" izanda, gainera. "Kultura berri bat ezagutzeko hango jendearekin bizi izatea oso interesgarria dela uste dugu", diote.

Ikasteko asmotan doaz, baina zerbait badakite Dionewarri buruz. "Salum deltan dagoela dakigu, 6.000 biztanle inguru dituela eta gehienak arrantzaleak direla. Bergaran dionewartar asko dagoela ere badakigu".



MARTIN CALVO

Gesto (1985-2013)

Bakearen Aldeko Koordinakundea (Gesto por la Paz) pare bat hilabete hasitako finantziario kolektiboa osatzear da. 28.000 euro bildu nahi dituzte dokumental bat egiteko, zeinean talde bakezalearen ibilbidea, independentzia eta balio etikoa azpimarratuko den, berori gorpuztu zuten hogeiki kideri egindako elkarrizketen bidez. Arduradunen hitzetan, "tresna didaktiko bat" izango da, "indarkeriaren zentzugabekeria" begi bistan utziko eta "memoria zein elkarbizitzaren beharra" aldarrikatuko duena.

Bakearen Aldeko Koordinakundea bakearen eta giza eskubideen aldeko lana burutu duen elkartea izan dugu. 1985etik 2013ra aritu da, Euskal Herrian izandako terrorismo

adierazpen ezberdin guztiak salatzen, gizartearen sensibilizazioa jorratzen eta elkarbizitza behararen kontzientzia pizten. 2011ko urriaren 20an ETAK gauzatutako indarkeria bukatutzat eman ondoren, bere ibilbidearen amaierari ekin zion, eta 2013ko ekainaren 1ean Bilbon itxiera-ekitaldia egin zuen.

Berez, dokumentala abian jartzeak hamarkadetakoa pasabide hunkigarriak, isiluneak, albo baterako

EZBERDINEN ARTEKO ADOSTASUN ETA KONTSENSUAK ASKOZ ERA SENDO ETA IRAUNKORRAGOAK DIRA

begiradak eta koldakeria adierazpen lotsagarriak gogora ekartzen dizkit. Norberarenetatik hasita, eragin ditzakegun sarraski, lelokeria eta hanka-sartzeak noraino hel daitezkeen pentsatzeko arrazoia ematen dizkit.

Emaitza ikusteko irrikan, beruneko sasoi haietatik irakaskuntza hauekin geratzen naiz: gizaki guztiek merezi dute, gutxienez, bigarren aukera bat; eta gure gizarte konplexu honen aniztasun identitario, politiko eta kulturalak batasunerako aktibo bat bezala funtzionatu beharko luke.

Arazoei irtenbidea emateko gehiengoaren maxima beharrezko eta zilegizkoa da, baina ezberdinen arteko adostasun eta kontsentsuak askoz ere sendo eta iraunkorragoak dira. ■■■

EZTABAIDA

Herri erdiguneetan kameraren zaintza

Herri eta hiri gehienetako kaleetan kamerak daude. Iruñean, San Fermin jaietarako kamerak non izan diren ikusgai jarri dute mapa publiko batean. Beharrezkoak dira?



IDOIA LAZPITA
UDALTZAINBURUA

"Segurtasuna mantentzeko eta inplikatuak identifikatzeko tresna erabilgarriak dira, baina horrekin ez ditugu delituak saihesten. Kamerak bai, baina ez beti eta ez leku guztietan; poliziaren presentzia indartuz efektu bera lor dezakegu, intimitatean eragin gabe".



AINHOA NARBAIZA
MARTXANTERA

"Jai seguru eta askeak izateko zer behar dugun eztabaida potoloa da. Segurtasunaren izenean, instituzioek bestelako helburuak dituztela argi dago. Kontrol sozialaren, *anaia handia-ren* eta *mozal legea-ren* adierazpena dira kamera eta polizia ilara berri guztiak".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA

MAIDER
AZKARRAGA-URIZAR**Iturri zaharreko ur berria**

San Fermin egunean, lehen aldiz dantzatu zuten Lesakako hiru emakume dantzarik Lesakako Zubigainekoa, Onin ibaiaren ertzean.

Berrizen ere, aurten, San Pedro egunean, atera da emakumea ezpata-dantza egitera.

Duela urtebete atera ziren Iurretako emakumeak ere Dantzari Dantza egitera. Oñatin ere, aurten bigarren urtea izan dute emakumeek Corpus egunean dantzari gisa.

Geroz eta gehiago dira gure herrietako haur eta helduen dantzari egunetan ere, "mutilen dantzak" egitera plazara ateratzen diren neskak, eta orain arte mistoak izan diren dantzak eta bikoteak neskek osatutakoak izatera pasatu dira.

Ohiturak ohitura eta tradizioak tradizio, ezin dute horiek inor bazterrean, dantza egin gabe utzi.

Ezin gara bizi garen garaitik isolatu, eta beste garai baten ispilu izan.

Iraganeko molde zaharretatik molde berriak eraiki behar ditugu, orain arte egin dugun bezala, naturaltasunez.

Egiten ari garen urrats bakoitzean utzi behar dugu arrastoa; irautea nahi badugu, aurrera besterik ezin baitugu egin. ■■■

MAIALEN SANTOS
HERRITARRA

"Kameren presentzia, tamalez, beharrezkoa iruditzen zait. Askok kontrolerako tresna modura ikus ditzakete, txarrerako. Halere, pertsonen identifikaziorako erreminta egokiak iruditzen zaizkit; eraso bat gertatzen denerako, esaterako".

JON FERNANDEZ
HERRITARRA

"Nire ustez, alde ona eta txarra daukate. Izan ere, alde batetik, ikusten dut biolentzia murrizteko balioko luketela, jendea zainduta egote horrekin. Baina, bestetik, ikusten dut baita ere jendearen pribatutasuna galtzen dela eta ezerosoa izan daitekeela".

Integrazio on baten alde



AGUSTIN UNZURRUNZAGA GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA

Aniztasuna eta dibertsitatea nabariak diren gizarte batean bizi garela egitate bat da. Eta munduaren bilakaera kontuan hartuta, gauzek hala jarraituko dutela dirudi. Gure gizarte hau beti izan da anitza, gizarte gehienen antzera. Europako zati txiki bat gara, eta Europako beste lurraldeetan gertatu den bezala, migrazio diferenteen topaleku izan gara historian zehar.

Aniztasuna ez da, berez, ona edo ederra, edo txarra eta zatarra. Horrela, ba, aniztasuna guztiontzat aberasgarria izan dadin, ondo kudeatu beharko dugu gaia, kontuan hartuz, normalean, arazoa ez dagoela diferentzien objektibotasunean, hauei ematen diogun garrantzi politikoan baizik. Edo Tzventan Todorov-ek esaten zuen bezala: "Askotan, diferentziaren erretorikak, aniztasuna goraiatzaren aitzakiarekin, identitate nahiaren kamuflaje oportunistak bat ezkutatzen du... talde txikiagoak eta homogeneoagoak eraikitzea...

Diferentzia ez da balio absolutu bat, eta beti da hobe besteekin bizitzen ikastea, norberaren baitan ixtea baino" (Tzventan Todorov. *El hombre desplazado*).

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan, 163.000 atzerritar inguru bizi dira –hau da, nazionalitate espainola ez dutenak–; populazioaren %7,4. Atzerrian jaiok 221.000 inguru dira, baina horietatik milaka batzuek nazionalitate espainola eskuratuta dute jada, eta utzi egin diote atzerritar izateari; zentzu juridiko-politikoan, hiritar oso bihurtu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019ko lehenengo hiruhilekoan, langabezia tasa orokorra %9,58koa izan da, eta bertan bizi diren atzerritarrena %25,84koa, baina komunitarioak ez diren artean langabezia tasa %29,05ean dago.

Halako langabezia tasarekin, bereziki ez komunitarioen kasuan, nahiz eta

ekonomiaren atzeraldia amaitutzat eman, populazioaren herenak jarraitzen du langabezian. Honek, halabeharrez, beste ondorio batzuk ditu populazioaren zati horretan. Lau azpimarratuko nituzke: –Pobrezia dezent handiagoa dela.

–DBE sisteman, Oinarritzko Errenta jasotzeko sisteman, portzentaje handiago batean agertzen direla.

–Etxebizitzarako dirulaguntza osagarria jasotzerakoan ere, portzentaje handiago batean ageri direla.

–Administrazioarekiko, gizarte-zerbitzuarekiko dependentzia handiagoa dutela.

Gizarteratzea ez da gauza espontaneo bat, erlazioa da bere oinarria. Alde batetik, gizarte berrian eranstea dakar, baztertuta ez geratzea. Bestetik, errealitate sozial berri bat bultzatzea, bertan gauden guztion artean eta guztion parte-hartzearekin,

bizikidetzarako espazio berri bat sortuz.

Esperientziak erakusten digu integrazio mota asko daudela, eta batzuk ez direla batere interesgarriak; gizartearen periferian gauzatzen direnak, edo marjinazio kulturala edo laborala gainditzen ez dutenak, alegia. Ahalegina eskatzen du, eta eskubideetan berdinak izatearen aldeko praktika sozialak bultzatzea. Edo, beste modu batera esanda, integrazio kulturala eta soziala batera joan behar direla, kontuan hartuz hemen, gaur egun, eremu soziolaboralean –langabezia, pobrezia, lansarien diferentziak...– eta sozialean –ohiturak, harremanak, aurreiritziak, estereotipoak...– izaten direla arazo handienak.

Langile migratzaileek langile-klasearen osaketa etnikoa aldatzen dute, baina ez dituzte aldatzen ekonomia eta gizarte alorreko arazoak. Gaur egun, neurri batean, hainbat gizarte arazok etnifikatzeko joera dute, eta immigrazioaren gaia arazo

sozialaren zati garrantzitsua da. Gizarteratze on baten aldeko jardunean, eremu diferenteetan saiatu beharko dugu, baliabideak jarri. Denborak ez ditu, berez, gauzak konponduko.

Integrazio on baten alde egiteak, gutxienez, ondokoa eskatzen du:

- Kultura publiko komun partekatuaren aldeko jarduna, gizartea guztion parte-hartzearekin osatzeko.

- Immigranteen kultura eta identitate espezifikoaren onarpena, gizartearen aniztasunaren legezko parte bezala, giza eskubideetan eta demokraziaren printzipioetan oinarrituta, hala nola askatasun pertsonalean, autonomia pertsonalean, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunean, laiktasunean eta askatasun erlijiosoan.

- Identitate anitzak, mestizoak, dituzten pertsonen onarpena, kontuan hartuz lagungarri izan daitezkeela elkarrizketa eta zeharkako elkartasunak errazteko. ■■■

AHALEGINA ESKATZEN DU, ETA ESKUBIDEETAN BERDINAK IZATEAREN ALDEKO PRAKTIKA SOZIALAK BULTZATZEA



Mikel Bakaikoa, adi-adi, Santa Teresaren kontrako kanporaketan.

"Harro nago taldeaz, eta horrek laburtzen du egin dugun urtea"

MIKEL BAKAIKOA EMAKUMEZKOEN OSASUNA TALDEKO ENTRENATZAILEA

Multzo berean Eibarren, Alavesen eta Athleticen kontra lehiatu arren, jokalaria gorritxoek emakumezkoen Bigarren Mailako liga txapelketa irabazi dute, hamalau partidu jarraian irabazi ostean. Bigarren itzuli osoan ez dute partidurik galdu. Abuztuaren 3an, Bergaran jokatu dute, Realaren kontra.

Testua: **Mireia Bikuña**. Argazkiak: **Osasuna eta Mikel Bakaikoa**.

Duela hiru urte egin zuen Osasunak emakumezkoen futbolaren aldeko apustua. Hiru urteko bizitza dauka hurrengo denboraldian emakumezkoen futboleant sortu berri den Lehenengo B Mailan jokatu duen taldeak. Hiru urtean, bi igoera.

Azkena, punta-puntako taldeen kontra borrokatu behar izan duena: Alaves, Athletic B eta Eibar, besteak beste. Oinarri sendoa duen taldea da gorritxoa, eta barkuaren kapitaina, mahonero bat. Urdin kolorea gorriarekin aldatu duena.

Mutilak Lehenengo Mailara eta neskak Lehenengo B Mailara. Zalantza barik, urte borobila izan da Osasunarendako.

Klubarendako denboraldi bikaina izan da. Talde nagusien igoeraz gain, azpimarragarria da baita ere bigarren taldeek lortutakoak: Osasuna Promesas Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igo da eta emakumezkoen bigarren taldea, Erregionaletik Bigarren Mailara. Hortaz, lautik lau igoera. Horri gehitu beharko genioke harrobiko taldeek egindako lana. Emaitzetatik harago, lehenengo taldeetako etorkizuneko jokalariek lan handia egin dute.

Azken emaitza ikusita, zuek eta Osasunak antzerako bidea egin duzuela esan daiteke. Klubeko bi talde nagusiak zarete. Badaukazue harremanik zuen artean?

Gizonezkoen Osasunak ardura eta pisu handiagoa dauka klubean. Euren helburua igoera zen hasieratik, eta hori lortzeko egin dute lan. Egia da, era berean, Jagoba Arrasate oso gertuko delat, entrenatzaile eta pertsona moduan. Elkarrekin egon garenetan, aholkuak eman dizkigu, eta gure lanaren berri jakin gura izan du. Gainera, klubeko entrenatzaileen formakuntzan parte-hartze zuzena dauka. Dena den, harrobiko taldeek entrenamenduak antolatzeke beste era bat daukate.

Osasunara heldu zinenean, bi helburu zehaztu zenituen: Lehenengo B Mailara igotzea; eta emakumeen taldea indartzea eta beharrezko presentzia ematea. Lehenengoa lortuta, zein puntutan dago bigarrena?

Lehenengo helburua lortu ahal izateke, ezinbestekoa zen talde sendoa lortzea. Oinarriak finkatu, jokalariekin lan egin eta sinetsarazi talde onenen kontra lehiatzeko gai zirela. Horrek guztiorrek ekarri du igoera. Baina egia da, baita ere, oso baloratuta sentitu garelak klubean.

Mutilen taldeak dituen baliabide berberak ditugu: medikuak, gimnasioa, zerbitzuak, lan egiteko metodologia, analista baten laguntza... Talde bat gehiago gara, eta guk lortu dugu hori. Bagoaz pausoak ematen.

Garbi erakutsi duzuen izan da gai zaretela zaleak Sadarrera eramateko: Eibarren kontra ia 10.000 lagun eta Alavesen kontra 7.000. Ez da marka makala.

Ikusgarria izan zen. Zaleen eta gizartearen babes izugarria izan da. Oraingoan, gu izan gara babes hori sentitu dugunak, eta lana ondo egiten ari garen seinale da. Bada, harrobiko taldeek ere behar dute babes hori. Geroz eta jende gehiago joaten da emakumezkoen kirola ikustera. Baina sekula ez da nahikoa. Guztion arten egin behar dugun bidea da: klubak, jokariak, zaleak, hedabideak, eragileak, gizarteak...

Horrenbeste zaleren aurrean jokatzek zein sentsazio sorrarazten du?

Sentsazio eta sentimendu kontraesankorrak. Izugarria da 10.000 pertsonaren aurrean jokatzek, eta horrek sorrarazten duena deskribatzea, ezinezkoa. Baina, era berean, ardura maila igotzen du horrek. Eibarren eta Alavesen kontra jokatu aurreko astean, ilusionatuta geunden guztiok; baina baita arduratuta eta urduri. Gauzak ondo egin gura genituen: ondo jokatu, maila eman eta irabazi. Zorionez, lortu egin genuen, Sadarreko bi partiduetan.

Hain justu ere, Eibarren eta Alavesen kontra bakarrik galdu zenuten txapelketan, eta lehenengo itzulian.

Bigarrenegun egindako lanak eman zizuen igoera.

Bigarren itzuli osoan ez genuen partidurik galdu. Hamalau garaipen jarraian lortu genituen, eta horrek aukera eman zigun aurretik genituen Alaves, Eibar eta Athletic harrapatzeko.

Bagenekien gure esku zegoela. Borrokan jarraitu behar genuela. Atzetik aurrera egindako bidea izan da, eta horrek meritu handiagoa ematen dio lortu dugunari.

Liga irabazi eta Lehenengo B Mailara igotzeaz gain, emakumezkoen futbolaren gorengo mailan jokatu ahal izateko faserako txartela lortu zenuten. Santa Teresaren kontra bukatu zen ametsa.

Bai, eta kolpe gogorra izan zen. Helburua Lehenengo B Maila zen, baina ez liga irabaztea, eta, are gutxiago, igoera fasea jokatzek. Baina, txartela lortuta, ez ginen kikildu, eta genuen dena eman genuen bi partiduetan. Oso berezia izan zen itzulerakoa Sadarren jokatzek, zaleen aurrean... Baina ezin izan genuen emaitza itzuli, eta kanpoan geratu ginen. Egia da lehen kanporaketa

hura gaintutuz gero, bigarren bat jokatu beharko genuela, baina, behin amesten hasita... Dena dela, horrek ez du aldatzen denboraldian egin dugun lana. Denboraldiaren balorazioa. Harro nago taldeaz. Harro nago egin dugun lanaz. Oso harro nago, eta horrek laburtzen du denboraldian egin duguna.

Eta, irailetik aurrera, Lehenengo B Maila. Nolakoa izatea espero duzue?

Maila berria da. Lehenengo eta Bigarren mailen artean dagoen hutsunea betetzeko asmoz sortu dute. Bi taldetan banatu gaituzte, eta uste dut oso gogorra izango dela. Talde guztiek egin dituzte fitxaketak, baita guk ere. Jaitsierak egongo dira, eta horrek esan gura du lehenbailehen mailari neurria hartzea ezinbestekoa izango dela. Tentuz joan beharko dugu. Pausoz pauso. Lehiatzeko gai izan behar dugu.

Hainbat fitxaketa egin dituzue, baina iazko jokalaria gehienek jarraitzen dute. Taldearen bizkarrezurra bermatuta dago, hortaz.

Eta horrek asko lagunduko digu maila berrian. Nik uste dut aise irabazi dutela Lehenengo B Mailan jokatzeara. Min hartuta egon diren jokalaria batzuek bigarren taldean jokatu dute, eta hiruk taldea utzi dute. Bestelakoan, bai jokalariek eta baita talde teknikoak ere bigarren denboraldia egingo dugu elkarrekin, eta gogotsu gaude. Horrenbestez, prest gaude maila berriaz disfrutatzeko eta, ahal dugun heinean, baita ikasteko ere.

Gehienek esaten dute bigarren urtea lehena baino zailagoa eta gogorragoa izaten dela. Iritzi berekoa zara?

Ba, ez dakit. Maila berria da. Erronka handia guretzat. Badakigu lehia oso gogorak jokatu beharko ditugula. Zailagoa izan daitekeela? Akaso, bai. Edo ez.

Oraindik oportetan zaudete?

Hilaren 23an hasiko gara entrenatzen. Jokalari bakoitzak badauka egitekoa, prestatzaile fisikoak prestatu diena. Abuztuaren, entrenatzen jarraituko dugu eta hainbat lagunarteko jokatu ditugu. Egiten den denboraldi-aurrearen araberkoa izaten da ondorengo lana.

Ziur nago Frantziako Munduko Txapelketako partiduren bat ikusiko zenuela.

Familiarekin egoteko aprobetxatu dut, gehienbat. Baina bai, ikusi ditut partidu batzuk. Eta maila handiko txapelketa iruditu zait, gainera. Selektzio oso onak egon dira. Finala ere ikusgarria iruditu zitzaidan.



Bakaikoa, liga irabazi izana ospatzen, jokalariekin.

"OSO BALORATUTA SENTITU GARA KLUBEAN; MUTILEK DITUZTEN BALIABIDE BERBERAK DITUGU"

"GOGORRA IZANGO DA LEHENENGO B MAILA, BAINA LEHIATZEKO GAI IZAN BEHAR DUGU"

"NIRE AITONA ONESIMO MANZANOK SARTU ZIDAN ENTRENATZAILE IZATEKO HARRA"



Mikel Bakaikoa, Osasunara heldu zen egunean.

Messiz eta Cristiano Ronaldoz harago, beste izar batzuk ezagutzeko aukera izan dugu: Alex Morgan eta Megan Rapinoe, besteak beste.

Zenbat laguntzen duten hedabideek lan horretan! Partidu gehienak telebistaz ikusi ahal izan dira, eta horrek oihartzun handia ematen dio emakumeen futbolari eta, oro har, emakumeen kirolari. Neskatila askorendako idoloak dira jokalaria horiek, eta horrek asko pozten nau.

Espainiako ligako klub handiek ere apustu sendoa egin duten emakumezkoen futbolarekin. San Mamesen, Anoetan, Wanda Metropolitanon, Camp Nou... zale mordo bat da emakumeen futbola ikusteko. Hori da bidea.

Zale gaztetzkoen emakumezko futbolarien kamisetak eskatzen dituzte orain. Sare sozialetan agertu dira Osasunako kapitain Mai Garderen kamisetarekin jantzitako hainbat zale.

Gauza polita da hori. Taxoarera joaten diren zale gaztetzok erakusten dute jokalaria ezagutzeko grina: sinadurak, kamisetak, posterrak...

Denboraldi-aurrean jokatu duzuen lagunartekoetako bat Bergaran izango da, Agorrosinen, Realaren kontra.

Abuztuaren 3an egongo gara han. Guretzat, erronka polita izango da Erreginaren Kopa irabazi duen Realaren kontra jokatzeko. Era berean, oso berezia izango da niretzat. Bergararra izanik, lagun eta ezagunen aurrean jokatzeko polita izango da.

Zuk jokatu zenuen Bergarako elastikoarekin.

Bai. Gazte mailara arte jokatu nuen Bergaran. Hegalekoa nintzen, eta jokoa antolatzeke sena nuen. Nire aitona, Onesimo Manzano, nire zale amorratuena izan zen. Partidu guztiak ikustera joaten zen. Harekin hasi nintzen entrenatzaile lanetan. Aitonak sartu zidan entrenatzaile izateko harra. Hari esker heldu naiz honaino.

Eta zein oroitzapen dituzu jokalaria izan zinen garaietatik?

Bereziki, Gipuzkoa osoko futbol zelaietan jokatzeko aukera izan genuela. Lagunekin eta futboleko jokatzera, gainera. Urte politikak izan ziren. Garai hartako lagun onak ditut oraindik ere.

Eta futbolaren bi aldeak probatuta, zerekin geratzen zara?

Garai bakoitzean berea. Futbolari nintzen garaia ederra izan zen, eta gustura egon nintzen. Orain, entrenatzailea naiz, eta hemen ere gustura nago. Maila ezberdinetan jardun dut. Mutilekin eta neskekin. Oso aberasgarria da entrenatzaile izatea. Jende mordo bat ezagutzeko aukera izan dut, eta ez nuke aldatuko. ■■■

Diapasoi-belarria

ENTZUMEN ABSOLUTUA

ANE UGARTE OTORRINOLARINGOLOGOA

IRUDIA: PMK

Abesbatza bat kantuan hasi behar denean, zuzendariak diapasoi bat erabiltzen du tonua hartzeko. Orkestra batean, musikari bati erreferentziako nota bat jotzeko eskatzen zaio beste guztiak afinatzeko.

Erreferentziako nota hori ez litzateke beharrezkoa izango, taldeko kide guztiak entzumen absolutuaren jabe balira.

Entzumen absolutua nota musikal bat identifikatzeko edo nota zehatz bat abesteko gaitasuna da, eta hori, kanpoko erreferentzia bat izan gabe.

Mozart, Bach, Freddie Mercury eta Michael Jackson, esaterako, gaitasun honen jabe ziren.

Musikarako gaitasun handia

Pertsona horiek gai dira soinu frekuentzien espektroan tonu bakoitza bereizteko. Gai dira, esaterako, edozein instrumentu emanda eskala musikaleko nota bakoitza identifikatzeko, eta gai dira pieza musikal baten tonalitatea

identifikatzeko entzun bezain laster.

Dohain bereziak dituzte eta gai dira, baita ere, kanpoko erreferentziarik jaso gabe nota zehatz bat ondo abesteko.

Esan dezakete auto baten bozinen edo mikrouhin labeko txirrinaren tonua zein den, eta erreproduzitu dezakete lehen aldiz entzundako abesti bat aurrean partiturarik izan gabe.

Batera nota bat baino gehiago emanda ere, gai dira tonu bakoitza bereizteko. Esaterako, akorde batean emandako notak.

Musikarako abantaila miresgarria den arren, entzumen absolutuak badauka desabantaila garbi bat: pertsona horiek musikaz gozatzeko zailtasunak izaten dituzte. Kontzertu batean egon daitezkeen akats txikiak ere oso nabarmenak dira beraientzat.

Berezko gaitasuna edo landua?

Entzumen absolutua berezkoa da edo landu daitekeen gaitasuna da? XX. mendean egindako ikerketa batzuek

estimatu zuten fenomeno honen intzidentzia 1/10.000 pertsonakoa dela. Hau da, hamar mila pertsonatik batek du entzumen absolutua.

Pertsona horien belarriak ez dira anatomikoki bereziak. Gaitasunak zerikusi handiagoa du garunarekin eta soinuaren informazioaren prozesamenduari.

Entzumen aparatuen informazioa eskuin hemisferioak kudeatzen du. Ezker hemisferioa hizkuntzarekin erlazionatzen da, eta izena jartzen dio emandako notari.

Badaude zenbait animalia ahalmen hori erakusten dutenak –saguzarrak, otsoak, hegazti batzuk...-. Bikotekidea edo janaria bilatzeko orduan abantaila itzela dute.

Bestalde, zenbait gaixotasunekin lotu den ahalmena da; Williams sindromearekin eta espektro autistarekin, adibidez. Pista honek herentzia genetikoaren hipotesiaren bidean jartzen gaitu, nahiz eta gene horiek oraindik ez ezagutu.



**SOINU
FREKUENTZIEK
ESPEKTROAN
TONU
BAKOITZA
BEREIZTEKO
GAITASUNA DA
BELARRI
ABSOLUTUA**

askotariko ikasketa programak garatu dituzte entzumen absolutua lantzeko. Emaiza onak atera dituzte, gainera, 2 edo 3 urteko neska-mutikoeekin.

Lana, ordea, alferrikakoa izan da 5 urtetik aurrera hasitako umeekin. Horra hor aldi kritikoaren eta plastikotasun zerebralaren garrantzia.

Itzal asko oraindik

Argi dago gai honen inguruan itzal asko daudela oraindik, eta ikerketa berriak behar ditugula hobeto ezagutzeko.

Garrantzitsua da informazio hau guztia ez nahastea entzumen erlatiboa deritzonarekin eta kultura musikalaren lanketarekin.

Entzumen erlatiboaren kasuan, oinarri genetiko on batek musikarako gaitasuna ziurtatuko du, eta zenbat eta lehenago hasi musika ikasketekin, emaitzak orduan eta hobeak izango dira.

Entzumen absolutua garatzeko aukera, ordea, oso urruti geratzen da. ■■■

Azken urteetako ikerketek, ordea, beste ondorio batzuk argitaratzen dituzte. Ekialdeko Asian egindako ikerketek, esaterako, hipotesi berriak eman dituzte ezagutzera.

Entzumen absolutuaren gaitasuna ikuspegi linguistatik aztertzen dute, eta ez musikari lotutako aparteko fenomeno bezala.

Teoria berritzaileak

Vietnamera, mandarina edo kantondarra hizkuntza tonal bezala sailkatzen dira, non hitz batek esanahi bat baino gehiago duen

erabilitako tonuaren arabera.

Munduko populazioaren heren batek erabiltzen du hizkuntza horietako bat, eta herrialde horietako haur guztiek dute ama hizkuntza ulertzeko gaitasuna.

Horregatik, entzumen absolutuaren ahalmena unibertsaltzat ematen dute, eta defendatzen dute aldi kritiko batean lantzen ez bada, lehenengo, haurtzaroan galtzen duela biztanleriaren gehiengoak.

Haur asiarekin saiakuntzak egin ondoren,

Patinetearekin, maisu

MIKEL BOROBIA BERGARARRA 'SCOOTER' KIROLEAN

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: E.A. ETA JAVIER BOROBIA

Patinete esan nahi du *scooter* hitzak ingelesez, eta halaxe deitzen diote patinetearekin praktikatzen den kirolari ere. Mikel Borobia bergararrak 11 urte ditu, eta urte eta erdi daramatza kirol hau praktikatzen. "Youtuben ari nintzela, kirol honen inguruko bideo batzuk agertu zitzaizkidan, kasualitatez, eta ikusten hasi nintzen. Gustatu egin zitzaidan, eta probatzea erabaki nuen. Behin praktikatzen hasita, are gehiago gustatu zitzaidan, eta futbola utzi nuen *scooter*-a praktikatzen jarraitzeko", azaldu du.

Irunen hasi zen. Sei hilabetez ikastaro batzuk hartu zituen, eta, geroztik, Bergaran entrenatzen da. Laino skate pistan. Asteburuetan, Bilbora eta Irunera ere joaten da aitarekin.

Bi modalitate bereizten dira kirol honetan, eta biak egiten ditu Borobiak: *street* (kalea) eta *park* (pista). "*Street* modalitatean, barandak, kutzak, eskailerak eta beste hainbat elementu daude. *Park* modalitatea, berriz, pistan praktikatzen da. Pista batzuk *street* modalitatea praktikatzeko egokituta daude eta beste batzuk, *park* modaliterako soilik, pista arruntak", azaldu du. Pistak leku itxietan zein irekietan egon daitezke.

Maila onean

Txapelketei dagokienez, 45 segundoko edo minutu bateko bi saio egiten ditu kirolari bakoitzak, pistaren tamainaren arabera, eta denbora tarte horretan nahi dituen mugimendu guztiak egin ditzake. Mugimendu bakoitzak, zailtasun teknikoaren arabera, puntuazio bat dauka, eta, hori kontuan hartuta, hiru epaimahaikidek erabakitzen dute kirolari bakoitzaren bukaerako puntuazioa. Bi saioetako puntuazio onena da aintzat hartzen dutena.

Ekain hasieran, Espainiako txapelketa jokatu zuen bergararrak. Junior kategorian 15 parte-hartzaile inguruk hartu zuten parte, eta Borobiak brontzezko domina eskuratu zuen *street* modalitatean –*park* modalitatean bosgarren sailkatu zen–. 14 urtez azpikoak lehiatzen dira junior kategorian eta 14 urtetik gorakoak, maila absolutuan. "Oso pozik nago hirugarren postu horrekin. Podiumera igotzeko helburuarekin joan nintzen, eta halaxe izan zen. Lehenengo biak oso onak dira, eta

DUELA URTE ETA ERDI HASI ZEN BERGARARRA KIROL HAU EGITEN, ETA EMAITZA TXUKUNAK LORTU DITU JADA

irabaztea oso zaila zen", azpimarratu du.

Ekain bukaeran, berriz, Euskadiko txapelketan aritu zen, eta bigarren sailkatu zen *street* modalitatean –hirugarren *park* modalitatean–.

Babesleak ere baditu

Espainiako txapelketan hirugarren sailkatu ostean, Bartzelonako Nokaic Scooter enpresak interesa erakutsi du bergararrarekiko, eta bere babesle moduan ari da orain. "Ekipamendu guztia eta patinetea oparitzen dizkiote, eta, esan digutenez, bidaien %20 ordaintzeko prest egongo lirateke", dio Jesus Borobiak, Mikelen aitak. Horrez gain, Gasteizko Ride Size denda ere babeslea da. "Horrek asko laguntzen du, eta kirol honekin jarraitzeko aukera ona da. Izan ere, Bergaran bera bakarrik dago", gaineratu du. Berak, oraingoz, behintzat, "oso argi" du kirol honekin jarraitu gura duela, eta bergarar gazteak animatu gura izan ditu kirol hau probatzera.

Kirol federatua

Aurten, gainera, Euskal Herriko Irristaketa Federazioan sartu da kirol hau. "Orain arte, gure poltsikotik ordaindu behar izaten genuen guztia. Orain, 6.000 inguruko aseguru daukate, eta horrek beste lasaitasun bat ematen digu", azaldu du aitak. ■■■



Mikel Borobia, Laino skate pistan, patinetearekin eta dominak eskuetan dituela.



Borobia, Euskadiko txapelketan.



Borobia, Laino skate pistan, entrenatzen.

Lehen sektorea, denon ardura

ENPRESAK ETA ERALDAKETA SOZIALA

JULEN IRIONDO

ARGAZKIAK: JULEN IRIONDO

Gipuzkoako landa garapenerako elkarteek, Mendikoik eta Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia Departamentuak sustatu, eta Debagoienean eta Debabarrenean egindako lanketa oinarri hartuta, 2008an Juan Cruz Alberdi Collantes geografian doktoreak argitaratutako lanaren pasarte batek honela zioen: "Galdetutako enpresetako ordezkarien gehiengo handi batek zailtasunak ditu bere enpresa landa eremuaren babes ekimenetan inplikatu behar izateko arrazoiak modu natural eta bat-bateko batean identifikatzeko".

Lagina batere esanguratsua ez izan arren, testu hau izenpetzen duen honek Antzuolako herritarren artean egindako kale-galdeketa batean, galdetutako hiru lagunek zalantzarik egin gabe erantzun dute baietz, enpresari ere badagokiola baserriarekiko erantzunkidetasunez jokatzeari, denon hobe beharrez; litekeena da urte hauetan egindako lanaren ondorio izatea.

Aurrekariak

Antzuolako enpresa nagusiek badute lehen ere esperientzia euren negoziariko edo produktua ekoizpenerako erabakigarri ez den zerbaiti



Mari Karmen Iturbe.

denbora eta baliabideak eskaintzen, gizaratearekiko erantzukizun kontu bategatik: euskara sustatzen, lantokian –baina, aldi berean, kaleko bizitzan eragiten dute han hartutako hizkuntza ohiturek–. Orain, badute behar den beste zerbait, herriko lehen sektorea, laguntzeko prestutasuna ere, nahiz eta Deba Garaia landa garapenerako elkarteak Mari Karmen Iturberen arabera erraza izaten ez den nola lagundu ikustea.

1997AN LEHENENGOZ EGINDAKO ITUN SOZIALAK DIO DENON ARDURA DELA LANDA INGURUNEA

1997koa da Euskal Autonomia Erkidegoan eragile ekonomiko zein sozialek, publiko nahiz pribatuek, zenbait enpresak, tartean, sinatutako Landa Garapenerako Gizarte Ituna, lehenengoa, 2004an berretsi zena, sinatzaile gehiagorekin; hor tartean, 1998an, Landa Garapenerako Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak –laster dira berria eztabaidatzekoak–: "Itun sozial horretan jasotzen da ze onura dakartzkion landa inguruneak gizarateari: elikagai osasuntsuak, gertukoak, kalitatezkoak, geure kontrolpean ditugunak eta beharrezko ditugunak; eta, beste alde batetik, Debagoienean, eskualdearen azaleraren %85 landa ingurunea da, eta baserritarra da horren administratzaile eta kudeatzaile, ahalegin handi batekin, eta ia-ia etekin ekonomiko barik. Itun sozialak ekarri zuen Landa Garapenerako Legea, eta Lege horrek argi esaten du, landa inguruneak egiten duen ekarpenagatik, gizarate osoak duela erantzukizuna haren etorkizunarekiko".

Oinarri horrekin, aurreko hamarkadan, 2004an, Deba Garaia elkarteak ere hainbat harreman egin eta zenbait ekimen gauzatu zituen eskualdeko enpresa batzuekin, Debarroa izeneko proiektuaren barruan –Debagoienean eta Debabarrenean gauzatu zen



Lantegia eta baserria, elkarren ondoan, Antzuolan.

proiektua-: "Harrera ona izan zuen, nahiz eta iritsi zen 2008a eta hor etorri zitzaigun krisia; baina ekimen batzuk egin genituen, adibidez: "Arcelorren hozte dorretik negutegirako beroa hartzen da, eta hori igartzen du baserriarrak errentagarritasunean, energia eraginkortasunaren ikuspegitik ere onuragarri izateaz gain; edo LKSk hiru urtean bere langileen artean egin duen landa ingurunearekin lotutako proiektu-ideien lehiaketa".

Landa garapenerako elkarteak aldiro-aldiro berritzen du bere egitasmo-programa, eta egun indarrean dutenean berriz heldu diote gaiari, bigarren sektorea lehenengoaren laguntzaile izateko lanketari. Oraingo honetan, baina, ekimena eskualdeko gune batera mugatzea erabaki zuten:

Antzuolako herria aukeratu zuten, eta Ernaberritu izena jarri zioten ekimenari: "Antzuola aukeratu genuen, batetik, enpresek euskara bultzatzeko plangintzen esperientzia hor zegoelako; bestetik, eskola eredu propio bat garatuta duelako ere bai; eta 2.000 pertsonako biztanleria maneiatzeko modukoa ikusten genuen, eta hartan eragiteko modukoa".

Eta emaitza batzuk eman ditu enpresekiko harremanak, nahiz eta gauza astiro joan:

ERNABERRITU EGITASMOAREKIN, KONTSUMO TALDEKO OTARREAK LANTEGIAN BERTAN UZTEN DITUZTE

"Enpresetako batek lehenengo unetik eman zuen diru bat proiektu hau ez eteteko; enpresek ere errazten ikusten dutena da euren diruarekin zerbait babestea, baina guk zerbait gehiago nahi dugu: adibidez, Elayk gune bat egokitu du lantegi barruan kontsumo taldeko kide diren langileek euren otarreak han jaso ditzaten, baserriarrak bertan utzi ditzan, eta hori erosotasuna da langilearentzat".

Beste proposamen bat da, esate baterako, jarduera mistoak errazteko, hau da, baserriko lanak eta lantegikoak uztargarri egiteko lanaldi murriztuak ahalbidetzea: "Enpresak hemen kokatuta daudenez gero, komeni zaie inguru bizi bat edukitzea, denon onerako da hori". ■■■

Santa Ana jatetxean, terraza ederra udarako



IÑAKI PILDAIN SUKALDE ARDURADUNA
ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Arrasateko Uribarri auzoko Santa Ana hotela eta jatetxea gertu daukagu bezeroak hartzen jarraitzeko.

Uda osoan zabalik

Abuztu osoan ere irekita izango ditugu bai hotela eta baita jatetxea ere.

Domeka gauetan izan ezik, asteko gainontzeko egunetan izaten dugu, gainera, zabalik, bai eguerdian eta baita

gauetan ere, bazkariak eta afariak emateko, eta, udako eguraldi ona aprobetxatuta, daukagun terraza dotorean plater konbinatuak eta ogitartekoak eska daitezke bertan jateko.

Etxean egindako izozkiak eta gozogintza izaten ditugu, gainera, eta leku aproposa da gurea familian etortzeko.

Kanpoko bisitariak

Uda honetan, hotelean, Euskal Herriko barnealdearekin gozatzen datozen turistak

izango ditugu. Ameriketako Estatu Batuetatik asko etorriko dira. Baita Kanada ingurutik eta Australiatik ere. Gainera, azkenaldian, Koreatik ere bisitari ugari etortzen dira gure inguruko sektore industrialia ezagutzera eta, era berean, daukagun natura zoragarriaz disfrutatzen ere.

Ingurune paregabea daukagu kokatuta hotela, eta bertakoek eta baita kanpotik etorritakoek ere inguruko paisaia dotoreez goza dezakete uda honetan ere. ■■■

Santa Ana jatetxea

- **Helbidea:**
Uribarri auzoa 37, Arrasate.
- **Telefonoa:** 943 79 49 39.
- **Posta elektronikoa:** pildain@santaanamondragon.com.
- **Webgunea:**
Santaanamondragon.com.



SANTA ANA JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Txipiroi-krepeak perretxikoekin eta galeper-arrautzarekin

Osagaiak (5 lagunendako)

- Txipiroi garbiak, kilo erdi
- Tipula, 1
- Berakatzak, ale 1
- Piper berdea, 1
- Brik-pasta
- Perretxikoak, 100 g
- Galeper-arrautzak, 5
- Txipiroi-tinta, 5 pakete
- Patata moreak, apaintzeko

Prestaketa

- 1. Ebaki fin-fin, tipula, piperra, berakatzak eta perretxikoak. Ondoren, erregosi.
- 2. Ebaki txipiroiak eraztun txikitan eta gehitu aurreko nahasketari. Hori guztia utzi 30 minutu inguru sutan.
- 3. Eginda dagoenean, xukatu edo kendu likidoa. Eta likido horri gehitu txipiroi-tinta eta utzi sutan irakin arte.
- 4. Brik-pastarekin zorroa egiteko, zabaldu brika, erdian jarri txipiroiekin egindako nahasia eta galeper-arrautza bat. Bildu zorroa eta zotz batekin elkartu bukaera.
- 5. Sartu labera zorrotxoak, 5 minutu inguru, labea 180 gradutan dagoela.
- 6. Platerera ateratzeko, jarri txipiroi-tinta eta poltsatxoa gainean.
- 7. Apaintzeko, patata moreak egin labean 20-30 minutu inguru gatz eta olio apur batekin, eta, norberaren gustura ebakita, aurkeztu platerean.

Zailtasuna: ●●●●●

Aurreko zozketako irabazlea:

Jokin Uribeetxeberria Ateka (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Eman osagarriei garrantzia

ZER SARTU MALETAN

ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: @ LASIESTASHOES, @
LIBANEZ005, UNSPLASH.COM

Abuztua opor garaia izan ohi da askorendako. Maleta egin eta egun batzuk etxetik kanpo pasatzeko aukera dutenek maletan zer sartu eta zer ez pentsatu beharko dute.

Charm irudi aholkulari Olatz Agirrek nabarmendu du hainbat gauza izan behar direla kontuan maleta egin aurretik: "Jakin behar dugu nora goazen eta ze klima egingo duen; ze plan dugun kontuan hartu behar dugu –mendian ibiltzera edo hondartzara goazen, adibidez–; eta, azkenik, baita ze jenderekin goazen: familiarekin, lagunekin, lankideekin...".

Hondartzarako, kapazua

Hondartzan pasatu behar badituzu egun batzuk, zumezko kapazua eramatea gomendatzen du: "Poltsa horiek balio dute denetarik sartzeko barruan: toallak, kremak... Leku aurrezteko, toalla-pareoak eraman daitezke. Egia da zumezko kapazuek asko okupatzen dutela maletan. Tendentzia horri ez jarraitzeak ez badigu axola, telazko bat har dezakegu. Kolore neutroko bat hartuz gero, edozein jantzirekin ondo geratuko zaigu", dio Agirrek.

Kapazuak egunerako balioko du eta guerako, berriz, poltsa

txiki bat ondo dator dirua, giltzak, mugikorra... eramateko. "Sare moduko poltsak joera dira orain, eta ez dute lekurik hartzen maletan".

Ilerako osagarriak

Maletan ze osagai sartu erabakigarria izango da opor egunetan osatuko ditugun *look*-ak zehazteko. Hau da, maletan arropa neutroak sartu eta osagarriei jokatu, hori da Agirreraren aholkua: "Joera dira ilerako osagarriak: turbanteak, diademak, kapelak... horiek asko eramaten dira. Planaren arabera, bisera ere izan daiteke; eguzkitik babesteko balio dute eta, gainera, *look*-ari beste ukitu bat emango diote".

Gauzez irteteko asmoa dutenendako, osagarri egokiak izan daitezke lepoko eta eskumuturreko etnikoak: "Etnikoak, doratuak, koloredunak, larruzkoak, handiak... osagarriari garrantzia emango diogu horrela". Osagarri etniko horiek "asko jantzen" dutela gehitu du. Aurtengo joera belarritako handiak dira. "Jende guztiari ez zaizkio ondo geratzen, baina horiek dira joeran daudenak. *Look* soil bat asko jantzen dute", nabarmendu du.

Betaurrekoen garrantzia


Eguzkitako betaurrekoak maletan sartu behar diren *must have* horietakoak dira. Horren harira, Agirre irudi aholkulariak



Bisera, eguzkitik babesteko.



Alpargatak: erosoak eta freskoak.



Turbantearekin, ukitu berezia.



Maleta egiterakoan, arropa neutroa hartu, eta osagarriei eman garrantzia.

zera nabarmendu nahi izan du: "Kontuan hartu behar da betaurreko teknikoak, kirola egitekoak direnak, horretarako eraman behar direla eta kalerako beste batzuk izan beharko genituzkeela, jantziagoak".

Oinetakoen kasuan, erosoak eta freskoak hartu behar dira: "Orkatilara lotzen direnak, larruzkoak, joera dira aurtengo udan". Eta, nola ez, alpargatekin mediterraneo ukitua lortuko da.

Aprobetxatu sasoia

Aurrez esan bezala, arropa neutroa aukeratuta probetxu handiagoa aterako diogu maletari. Joeren jarraitzaile direnek, aldiz, gogoan izan behar dute zeintzuk diren udako joerak: "Vichy karratuak, arraiak, loreak, motak... horiek asko ikusten dira udako jantzietan. Uste dut uda aprobetxatu behar dugula horrelako jantziak janzteko. *Wrap* estiloko soinekoak, bularrean korapila dutenak... ondo geratzen dira. Baita gardentasunak ere, bolanteak...", azaldu du Agirrek.

Jantziak aukeratzeraoan udako girorako egokiak izango diren oihalak aukeratu; lihoa, esaterako. Freskotasuna eskaintzen duten oihal naturalak izango dira egokienak udako opor egunetan eroso ibiltzeko. ■■■

Txankletekin: bai ala ez?

ZIRKULAZIO ISUNAK

XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: X.G.

Udako beroa saihesteko, txankletak eta sandaliak ezinbesteko laguntza dira. Baina adi! Gidatzeko orduan, laguntza izatetik isun iturri izatera pasa daitezke.

Ez dago espresuki galarazita

Ilegala al da sandaliak jantzita gidatzea? Erantzuna ez da baiezkoa, ez ezezkoa; polizia agenteen interpretazioaren araberakoa da.

Zirkulazio kodeak ez du zuzenean galarazten sandalien edo txankleten erabilera. Baina bertako hainbat arau interpretatuz gero, arriskutsutzat jo daiteke praktika hori; batez ere, gidariak ibilgailua segurtasunez eramateko duen gaitasuna murriztu egiten dela interpretatu dezaketelako.

Hiru artikulu

Zirkulazio Araudi Orokorrean hiru artikulu daude gaiarekin lotutako interpretazioak egitea ahalbidetzen dutenak.

3.1 artikulua hau da: *Beharrezkoa da neurriak hartzea kalteak eragitea saihesteko; kalteak norberari, kalteak auto barruko beste lagunei, edo beste ibilgailu batzuetan doazenei. Beraz, erabat debekatuta dago ausarkeriaz edo arduragabekeriak gidatzea.*

17.1 artikulua, berriz, hau dio: *Gidariak gai izan behar dute, une oro, euren ibilgailuak eta animaliak kontrolatzeko.*

Eta hiru artikulu horietan argiena, akaso, 18.1 artikulua da: *Ibilgailu bat gidatzen ari den pertsona oro behartuta dago askatasunez mugitzeko moduan egotera, eta beharrezko ikuseremua izatera, bai ibilgailu barruan doazen pertsonen segurtasuna bermatzeko, eta baita errepidean doazen beste ibilgailu guztien segurtasuna*

bermatzeko ere. Duela gutxi, Guardia Zibilaren Twitter kontu ofizialean gaiari buruzko txioa bota zuten, eta bertan, askatasunez mugitzeko beharra aipatzen zuten multa jartzeko arrazoi moduan.

Isunak

Hortaz, legeak espresuki ez galarazi arren, isuna jaso daiteke, polizia agente batek modu arduragabeen gidatzen ari garela interpretatuz gero; arau-hauste arinak dira eta 100 euroko isuna dute. ■■■



Gidari bat, ortozik, hankak leihotik aterata dituela.

Txankletekin ez, baina ortozik?

Badaude ortozik gidatzen duten gidariak, sandaliak edo txankletek traba egiten dietelako. Ortozik gidatzea onartzen den ala ez galdetuta, hona Ertzaintzatik emandako erantzuna: "Batzuek ortozik gidatzen dute, txankletekin baino seguruago doazela argudiatuta. Baina jakin behar dute ortozik gidatzea sandaliakin gidatzea bezain arduragabetzat jo dezaketela agenteek; betiere, 17.1 edo 18.1 artikulua oinarri hartuta".



**ORTOZIK EDO
SANDALIEKIN GIDATZEA
EZ DA DAGO ESPRESUKI
DEBEKATUTA, BAINA
ISUNA ERAGIN DEZAKE**

Maddi Guridi

AMAIA TXINTXURRETA GURIDI

ARGAZKIAK: MADDI GURIDI

Txiki-txikitatik gustatu izan zaio marraztea Maddi Guridi oñatiarrari. Arte Ederretako ikasketak egin eta, gaur egun, herriko arte udalekuetan gaztetxoaren irakasle dihardu, besteak beste.

Nolako lanak egiten hasi zinen?

Koadroak pintatzen hasi nintzen lehenengo; gorputzak eta eskulturak marrazten, batez ere. Nire lanek baina, garapen bat izan dute, eta orain, ordenagailua geroz eta gehiago erabiltzen ari naiz, diseinu grafikoaren munduan murgiltzen hasi naiz; Illustrator eta Photoshop asko erabiltzen ditut, esaterako.

Ilustrazioa ordenagailuz egitea gustatzen zaizu, orduan?

Bai; horrek aukera ematen dit, lehen egiten nuen moduan, hasieran eskuz marrazteko, baina eskuz egindako lan horri, gero, programa horien bitartez, koloreak eta efektuak beste modu batean sartzeko aukera izaten dut. Marrazten lortu ezin dena egin daiteke programa horien bitartez.

Hainbat kartel egin izan dituzu, baina, azkenaldian, Hotz Oñatirendako proiektu batean zabilta buru-belarri, ezta?

Bai; herritarrendako kontzientziazio kanpaina bat aurrera eramaten ibili naiz, errefuxiatuen krisi humanitarioaren barruan.



Kartelak eta kalerako interbentzioak egin ditut, nahiz eta oraindik ez dauden ikusgai kaleetan. Errefuxiatuen gaia pil-pilean dago eta nire aletxoak jarri nahi izan dut kontu horretan. Elkartearen logotipoa ere harmonizatu dut.

Ahizparekin batera ere egiten dituzu hainbat lan.

Bai; Uxuek marrazkiak egiten ditu, normalean, eta nik kolorea edota bestelako ukituak egiten dizkiot horri. Esaterako, koadro baten bertsio bat aurkeztu genuen Madrilgo Thyssen museoko lehiaketa batera. Oso ondo moldatzen gara eta talde ona osatzen dugu.

Zer ematen dizu marrazteak edota ilustrazioekin lan egiteak?


Lasaitasuna. Orduak eta orduak pasa ditzaket koadroak marrazten eta sormena lantzen, guztiz kontzentratuta. Bestetik, ilustrazioak ordenagailuan editatzen ibiltzeak ere pertsonalki aberastu egiten nauela esango nuke.

Badituzu zure lanak etxean jarrita?

Bai; nik egindako koadro asko dauzkat paretetan jarrita, eta orain, ilustrazioendako txoko bat ere egokitu dut.

Sare sozialak erabiltzen dituzu?

Instagramen *@magui_son* kontu artistikoa sortu nuen, eta erakusleihu polita da, jendeari nik egindako lanak erakusteko. Plataforma garrantzitsua da eta enkarguak ere eskatu izan dizkirate, gainera. ■■■



"Melodia erakargarriak eta ulertzeko errazak dira"

ARAN SAIZ MARKULETA MUSIKARIA

AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: IÑIGO ROLLO

Musika klasikoan hezi da, bereziki, Arantzazu Saiz, baina,aldi berean, iturri askotatik edan du. Askotariko musika proiektuetan parte hartu du, eta orain, lan pertsonalena argitaratu berri du, *Bidean* diskoa; Joseba Loinaz eta Hasier Oleaga ditu bidelagun.

Musikagintzan ibilbide luzea duzu, eskola ezberdinetan ikasitakoa.

Klasiko arloko ikasketak bukatu nituen Donostian, 25 urte nituela, eta Iruñean eskola batzuk ematen izan nintzen geroago. Handik Bartzelonara joan nintzen, eta, pop estiloko musikariekin jotzeaz gainera, jazz eskolak ere hartu nituen. Sei urte egin nituen han, eta oso esperientzia ona izan zen.

Diozu Avishai Cohen musikaria deskubritu zenuela han, eta begiak zabaldu zizkizula. Nor da?

Lagun batek etxera diskoa ekarri, entzun, eta maitemindu egin nintzen haren melodiekin. Israelgoa da, melodia itzelak sortzen ditu eta jazz arlora eramán. "Hori da nik egin nahi dudana", pentsatu nuen. Estilo

asko entzun izan dut betidanik eta musikari horrek hori guztia batzen duela iruditu zitzaidan; eta harengan inspiratuta hasi nintzen kantuak konposatzen.

Izan duzu ezagutzeko aukerarik?

Zazpi edo zortzi aldiz ikusi dut zuzenean, eta Londresen oso gertu izan nuen, baina, lotsatu, eta ez nintzaion hurbildu...

Euskal Herrira etorri eta handik denbora batera jarraitu zenuen idazten. Zelan izan da *bidea*?

Amatasunarekin geratu, eta haurrak handitu ahala berriz heldu diot. Joseba Loinaz, orain

dela 20 urte nire piano irakaslea izan zena, Lazkaoko musika eskolan zegoela jakin nuen eta hari erakutsi nizkion idatzitako bi kantuak. Baxu-jolea ere bada bera, eta elkarrekin lantzen hasi ginen kantuak, eta geroago, lagun zuen Hasier Oleaga bateria-joleari erakustea proposatu zidan; Oleagari gustatu, eta gurerá batu zen. Zortzi kantu sortu nituen gero, eta, hiruron artean moldatu ondoren, Fredi Pelaez aurkeztu zidaten eta haren estudioan grabatzea adostu genuen.



Aran Saiz piano-jolea, Joseba Loinaz baxu-jolea eta Hasier Oleaga bateria-jolea.



Aran Saiz piano-jole oñatiarrak *Bidean* lana argitaratu berri du.

"JOSEBA LOINAZ ETA HASIER OLEAGA MUSIKARIEKIN LAN EGITEA LUXUA ETA PLAZERA DA"

Bai, oso gustukoa. 18 urte nituenetik nabil; toki askotan ibili naiz: Iruñean, Oñatin, Bartzelonan... eta Aguraingo piano irakaslea naiz orain.

Zein da musika irakasleen egoera?

Esango nuke, orokorrean, asko hobetu direla lan-baldintzak; egia da, baina, egoera ezberdina dela eskola pribatuetan edo udaletakoetan.

Irakasteko modua eta materia ere asko aldatu da?

Txikia nintzenean eta gaur egun musika eskoletan irakasten denak ez daukate zerikusirik; lehen, exijentzia handiagoa zen, kontserbatorioetara eta musika klasikora bideratzen zen asko. Gaur egun, musika sozialagoa da; eskoletan tresnak jotzen erakusten da, hala nahi duenari kontserbatorioetara bideratuta. Hortaz, maila jaitsi egin da, neurri batean, baina kontzertu gehiago egiten dira, eta asko jotzen da taldeka. Nire ustez, hobeto enfokatuta dago orain.

Escolan oporrak, baina udan ere musika gertutik, ezta?

Bihar, Gasteizko OM tabernan joko dugu; eta, udaro moduan, jazzaldietara joateko asmoa ere badut. Oso gustuko ditut. ■

Karabolak karanbola, puntako musikariak dituzu alboan.

Hala da, bai. Sekulako zortea dut; hirukote formatuan jarraitu nahiko nuke, euren bestelako konpromisoek ahalbidetzen dieten neurrian. Entseatzeko Donostiaraino joan behar dut, eta esfortzua, dirua eta denbora da, baina izugarri pozik nago.

Diskoan sartuta, lan instrumentala da; zelakoa?

Zaila egiten zait estilo baten sartzea. Melodiek dute pisu eta protagonismo handiena. Entzuteko politak eta errazak dira; Gaztelupeko Hotsak-ekoek diote melodia positiboak direla, eta gustatu zait definizio hori. Erakargarriak eta elkarren artean oso ezberdinak dira. Erritmoari dagokionez ere, askotarikoak saiatu naiz sortzen. Melodiek pop aldera egiten dute eta erritmoek forma landuagoa

ematen diote; formakuntza, berriz, jazz arlokoa da – hirukotea –, eta, era berean, abestiek inprobisaziorako joera ere badute. Kontzertuetan eta Oñatiko Eltzian eskura daiteke.

Zuk jo zenuen diskoetxera?

Bai; Hasierrek eman zidan kontaktua eta euren babesagura nuela esanaz eraman nien grabazioa. Gustatu, eta euren zigilupean atera zuten.

Aurretik, beste grabazio batzuetan parte hartu izan duzu; zeinekin?

Bartzelonan gospel abesbatza batzuekin ibili nintzen eta hainbat kantautorerekin ere grabatu nuen, eta baita Aran Callega zinegilearekin ere; horrez gain, Oñatiko Ganbara abesbatzarekin kolaboratu dut, eta herriko Iker Martinez de Zuazorekin ere bai.

Ogibidez, musika irakasle zara. Gustuko lanbidea?

Trentzak eta emakumeak



La Trenza

Egilea: Laetitia Colombani
Argitaratzailea: Salamandra
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 208
Generoa: Eleberria



MILA AGIRREZABAL

BERGARAKO LIBURUTEGIKOA

Trentza edo ilea, orokorrean, feminitatearen sinboloa da askorentzat. Erortzean, oso mingarria egiten da. Hori pasa zitzaion egilearen lagun min bati gaixoaldi baten ondorioz. Berarekin ileorde natural bat erostera joan zenean, ordea, propietateak aztertzean, ilea oso erresistentea zela ohartu zen, eta, era berean, lotura sinbolizatzen zuela. Hortik atera zen eleberraren ideia.

La trenza liburuak elkarrekin gurutzatzen diren hiru emakumeren bizitza kontatzen digu. Smita, Indiako emakumea, *dalit*-a, ukiezin kategoria sailekoa, eta bere alabak berak baino bizitza hobea izatea nahi duena; bere bizilagunen putzu beltzak garbitzeaz bizi da. Giulia, Siziliako neska gazte bat, anbizioz beterikoa, zeinaren

aitak, ileordeen fabrika bateko jabeak, istripua izan duen. Eta Sarah, istorioaren hirurgarren emakumea, kanadarra, abokatua eta kontseilaria, hiriko abokatu-langela ospetsuenetariko batean lanean diharduena eta bere lankideen emakumea, zuhurkeria eta azpikeriagatik bere postua arriskuan duena. Hiru emakume, hiru bizitza sinestezin, eta historian zehar betirako lotuak geratuko direnak.

Estilo aldetik lan soila da *La trenza*. Hiru lerro narratiborekin, bakoitza emakume bat protagonista duela, gai asko ukitzen ditu.

HIRURAK OSO EMAKUME EZBERDINAK DIRA, BAINA KOMUNEAN SUFRIMENDUA DUTE

Aipagarriak dira, adibidez, emakumeen egoera Asiako herrialdeetan, gaur egungo gaixotasun sendaezinak eta hauek sortzen dituzten ondorio sozialak, edo negozio tradizionalak, egun, bizirauteko bizi duten egoera kaskarra multinazionalen aurrean. **Protagonistei** dagokienez, hirurak emakume oso desberdinak dira, eta beren gatazkak oso bestelakoak, baina komunean sufrimendua, emakume izateagatik diskriminazioa eta gainditzea eta borroka dituzte bidelagun.

Laetitia Colombani-k (Bordele, 1976) zinema ikasi zuen Louis-Lumiere eskolan, eta zinema zuzendari, gidoilari eta antzezte modura ezagun egin da. Audrey Tatou eta Catherine Deneuve bezalako artistekin lan egina, *La trenza* da idatzi duen bere lehen lana, Prix Relay saria jasoz.

Gozatu. ■■■

Goiena Klubeko uztaileko sariak!



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



ARRIKRUTZ

Sarrerak

Arrikruz kobek bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



www.harremendenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuk

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuk.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indean dagoen LOPD 15/1000 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itzategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilera honen helburu bakarra da indean dagoen datuaren gestioa.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeke, hasi zuzentzeko edo ezustatzeko, heldu honetara idatziz: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz 2019ko uztailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba

Artzainen katedrala

URBIAKO ANDRE MARIAREN ERMITA

MIREIA BIKUÑA

ARGAZKIAK: NATXO SANTOS ETA
GURE GIPUZKOA FUNTSA

Irailaren 28an beteko dira 95 urte Urbiako Andre Mariaren ermita inauguratu zela: 1924an izan zen. Arabatik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik joandako 30en bat autobus eta 100en bat auto batu ziren Arantzazun. Herritarrak prozesioan joan ziren Urbiaraino.

08:00etan irten ziren Arantzazutik. Ermitan ipini behar zuten Andre Mariari lagun egiten dantzariak eta Segurako txistulariak; eta lau mikelete, zaintza lanak egiteko. Oñatiko eta Segurako alkateak, Iruñeko prelatua, Arabako eta Gipuzkoako diputatuak, kirol elkarteetako presidentek... Guztiak batu ziren Urbian, eta han jaso zuten monsinore Mugikaren agurra. Ermita eta Ama Birjinaren irudia bedeinkatu ostean, bazkaria eta erromeria egin zituzten. Garaiko dokumentuek diote zizka-mizkak, legatza, oilaskoa, urdaiazpikoa eta arrautzak jan zituztela. Postrerako, Bergarako erreilenoak eta Urbiako gazta. Ospakizun bazkari hura Partzuergoak ordaindu zuen.

Era berean, ermitaren inaugurazio ekitaldia aprobetxatu zuten ipinitako lehen harria bedeinkatzeko eta telefono kabina inauguratzeko. Lehen harria ermita eraiki zen lekutik 200 bat metrora zegoen.

Maiatzetik azarora arte

Maiatzetik azarora 1era arte, domekero esaten da meza Urbiako ermitan; azken hamabost urteetan, Joseba Etxeberria frantziskotarrak esaten ditu mezak. Eguraldia ez da aitzakia izaten 11:30ean meza emateko. "Eguraldi onarekin, batez beste, 40 bat lagun elkartzen dira. Egunik jendetsuena San Inazio eguna izaten da. Herritarrak kanpoan geratzen dira, ezin sartu", kontatu izan du Etxeberriak berak.

Etxeberriak Julian Letonaren lekukoa hartu zuen, hark erretiroa hartu zuenean. Letonaren aurretik, aita Lasa izan zen Urbiako kapilau. Baina ermita horren bultzatzaile nagusia Adrian Lizarralde frantziskotarra izan zen. 20ko hamarkadan egindako lanari eta herritarren dirulaguntzari esker eraikitako ermita da. "Urbian ibiltzen diren artzainak elizgizonak ziren. Uda partean kilometro asko egin behar zituzten Arantzazuraino, meza entzuterara joateko. Hala, Lizarraldek garbi zeukan ermita

**URBIAKO ANDRE
MARIAREN ERMITA
20KO HAMARKADAN
BULTZATU ZUEN
ADRIAN LIZARRALDEK**

baten beharra zegoela Urbian. Proiektua martxan ipini zuen, eta beharrezko laguntza ere lortu zuen. Hari esker daukagu ermita", gogora ekarri du, askotan, Joseba Etxeberriak.

Diru ekarpena

Ermita eraikitzeko laguntza lortuta, egitasmoa gauzatzea bakarrik falta zen. Marcelo Guilabert arkitekto azpeitiarrak idatzi zuen proiektua, eta lanak zuzendu ere bai. Enrike Uriarteren langileek eraiki zuten eliza. Orduko Oñatiko alkate Santos Etxeberria izan zen diruzaina, eta Udal Gobernuak 1.000 pezetako ekarpena egin zuen; oñatiar boluntarioek 2.340 pezeta ipini zituzten; Legazpiko Udalak, 500; legazpiarrek, 455; Zegamako Udalak, 2.450; zegamarrek, 721; eta Mutiloak, berriz, 83.

Beste ekarpen batzuk

Diruaz gain, beste hainbat ekarpen ere egin zituzten hainbat herritarrek. Ignazio Zuloagak berak sinatutako olio-pintura oparitu zuen. Doloreetako Ama Birjinaren irudia Arantzazun daukate gordeta, balio handiko lana delako. Urbian dagoen Andre Maria Julio Beobide zumaiarrak egin zuen. Jose Urrezrietak sabairako egurrak eman zituen eta Patricio Echevarriak, oraindik martxan dagoen kanpaia. ■■■



Urbiako Andre Mariaren ermita.



Herritarrek, ermitaren inaugurazio egunean.



Herritarrek meza entzuten.

Isiltasuna



IRATI BARRENA

Komunikazioaren kontraktat edo komunikazioaren antonimotzat hartu dezakegu isiltasuna. Nire ustez, berriz, komunikazioaren barneko aspektu oso interesgarria da.

Zer da isiltasuna? Soinuaren ezereza, pentsatu genezake. Esaldi bat badago asko esaten duena isiltasunaren inguruan: "Isiltasunaren zarata". Ezerezaren zarata, ezerezaren soinua. Nolakoa da soinu hori? Ez dakigu deskribatzen. Urak duen zaporea deskribatzea bezain zaila egiten zaigu berau deskribatzea.

Bere definizioa aztertzeke orduan, sorpresa galanta eraman dut. Honela definitzen da isiltasuna: erabateko soinurik eza. Beraz, soinu bat bada, erabatekoa, gainera, baina erabateko ezereza.

Denok dakigu isiltasun batek asko esan dezakeela, ez dugu inongo dudarik horretan. Gehiegi, agian.

Laguntasuna edo konfiantza neurtzeko ere erabili izan ohi da isiltasuna. Nori ez zaio gertatu konfiantza handirik ez duzun pertsona batekin autoan joatean, biok isilik zaudetela



PNGTREE / PMK

ikusita, isiltasun hori betetzeko beharra sentitzea? Alboan duzun pertsonaren isiltasunarekin ez bazara deseroso sentitzen, ez baldin baduzu hutsune hori betetzeko beharrik sentitzen, asko esaten du horrek bion artean duzun harremanaz.

Isiltasun batek komunikazio esparru batean zerbait esateko

ASKOTAN, GEHIEGI HITZ EGITEN DUGU, ETA ISILTASUNEK HITZEK BESTE ESAN DEZAKETELA AHAZTU

edo adierazteko, aurretiazko komunikazio bat egon beharra dagoela uste dut. Bi pertsonak isiltasunean elkar ulertzen badute edo batak besteak esan nahi duena guztiz ulertzen badu ezer esan gabe, argi dago aurretiazko komunikazio garrantzitsua egon dela hor. Ideia hau ere oso gustukoa da niretzat. Ezerekin, ezerezarekin, badakizu beste pertsonaren komunikazio faltak, hutsuneak, zer bete nahi duen, zer esan nahi duen.

Beharbada, askotan, gehiegi hitz egiten dugu, isiltasunek hitzek beste esan dezaketela ahaztuta. ■

TESTUA: ITZIAR LARRAÑAGA



Canon IVY REC

Kamera txikia. Canon. 81 euro.

USB baten itxura daukan 13 megapixelesko kamera da, uraren aurka babestuta, eta klip sistema baten bidez arropetara lotu daiteke. Argazkiak edo bideoak wifi bidez zuzenean ordenagailura bidaltzeko aukera eskaintzen du; nahi bada, mugikorrera ere konektatu daiteke, argazkiak aurreikuszeko. *Crowdfunding* kanpainan amaitu berri du.

NanoCell SM9800

Telebista. LG. 1.999 euro.

Telebistaren IPS panelari esker ikuspegi zabalagoa lortzen da –178 gradurainokoa– eta freskatzera ere azkarragoa da; horri esker, bista gutxiago nekatzen da. Alpha 7 txipari esker, telebistak zazpi segundoan behin kalkulatzen du pantailak izan behar duen distira, inguruko argitasuna eta telebistan ikusten ari garen irudi motaren arabera.

SK650 White

Teklatua. Cooler Master. 160 euro.

Bereziki bideo jokoak gustuko dituztenentzako diseinatutako ordenagailurako teklatua da honako hau. Gailu erresistentea da, jokoan eraginez jaso ditzakeen kolpeentzako prestatuta dago. Ordenagailura konektatzeko USB-C sarbidea dakar. Soilik uztaila bukatu arte egongo da salgai hainbat saltokitan eta Interneten, edizio mugatua baita.

Diademak eta gomazko zintak, dekoratuta

EGILEA: ALAITZ JAUREGI

ARGAZKIAK: ALAITZ JAUREGI

Udan ilea gehiago lotzen dugu; beraz, eskulan polita izan daiteke ileko gomazko zintak eta diademak dekoratzea.

Materiala


- Guraizeak.
- Kola.
- Diademak.
- Gomazko zintak.
- Eva goma.

Nola egin


1. Eva goma ebaki Pentsatu zein apaingarri egin nahi dugun eta aukeratu eva gomaren kolorea. Behin erabakita zer egin nahi dugun, ebaki eva goma forma hori lortzeko moduan. Guk bihotz bat egingo dugu, eta kolore desberdinetako bi zati izango ditu: bat bihotz formakoa eta bestea forma borobilekoa.

2. Itsatsi zatiak Ebakitako bi zatiak kolarekin itsatsiko ditugu, osatu nahi dugun pieza lortzeko. Kontuz kolarekin urrats honetan!


3. Itsatsi diademara edo zintara Eva gomarekin egindako apaingarrira prest dugunean, itsatsi egingo diogu aukeratu dugun diademari edo gomazko zintari. Oraingoan ere kola erabiliko dugu; kontuz, beraz.



MATERIALA



1



2



3



EMAITZA



Inar Larrinaga Beitia

Eskoriatza. 3,500 kilo. Uztailaren 15a. Gurasoak: Izaro eta Haritz. Argazkian, Inar, sehaskan.



June Olalde Ayechu

Oñati. 3,620 kilo. Uztailaren 10a. Gurasoak: Sonia eta Egoitz. Argazkian, lasai-lasai lotan.



Eduard Roblero Arteaga

Bergara. 3,200 kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Aracely eta Edward. Argazkian, Eduard, amarekin.



Eider Aguirreurreta Tena

Arrasate. 2,800 kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Maider eta Beñat. Argazkian, amaren besoetan.



Irati Aldanondo Irazabalbeitia

Bergara. 3,080 kilo. Uztailaren 7a. Gurasoak: Maitane eta Xabi. Argazkian, Irati txikia, gustura lotan.



guraso.eus

Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulatuak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



SAMARA VELTE

ASTE HONETAN

DANA D'CAPRICHIO



Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

DOAN

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n